

KONTROL MOZIOA

Dbusen Eskaripeko geldialdiak ezartzeko aukera dela eta

Ayem Oskoz Urrutikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11n Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

AZALPENA

2016ko apirilean Donostian bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoaren arautegia onartu zen. Arautegi horretan jasotzen da, hiriaren irisgarritasuna eta segurtasuna genero ikuspegitik hobetzeko helburuarekin, dagokion txosten teknikoa jaso ondoren eta arrazoi sendoak daudenean, gai honetan neurriak hartzeko, erabiltzaileek geldialdia eskatu ahal izango dutela autobus linean ezarritakoetatik kanpo, zerbitzu bakoitzerako zehaztutako zati, baldintza eta ordutegietan.

Eskubide hori martxan jartzeko aldarrikapena agerikoa izan zen, 2018ko lehen sei hilabeteetan asko hitz egin zen eskaripeko geldialdien inguruan eta hauek nola jarri martxan Donostian. Udal Gobernuak, asko pentsatu ostean, froga pilotua martxan jartzea erabaki zuen; horretarako autobus linea bakar bat aukeratuz, B8 hain zuzen ere.

2019ko Urtarrilaren 17an, Dbuseko Administrazio Kontseiluak bilera egin zuen, bertan urteko balantzea egin zen, bidaiarien kopuruari dagokionez, eta aldi berean erabiltzailearen profilararen inguruko ikerketa interesgarri bat aurkeztu zuten.

Puntu honetan galdetuta ea zein balorazio egiten zuten eskaripeko geldialdien funtzionamenduaz. ez zutela puntu hori aztertu adierazi zuen Pilar Arana Mugikortasuneko zinegotzi-delegatuak, **nahiz eta zerbitzu hau gaueko linea guztietara zabaltzeko borondatea erakutsi zuen.**

Ulergaitza egiten zaigu Dbusek eskaripeko geldialdien funtzionamendua ez aztertu izana eta ondoriorik ez aurkeztu izana. Mugikortasuneko zinegotzi delegatuak eta Berdintasuneko zinegotzi delegatuak gai honi ez heltzea larria iruditzen zaigu.

Horregatik pasa den otsailaren 11ko Gune Publikoko batzordean eskubide hau linea guztietara zabaltzeko prozesua nola zegoen galdetu genuen eta jaso genuen erantzun bakarra izan zen, horretan lanean dihardutela eta espero zutela uda

baino lehen proposamen bat edukitzea. Erantzun honek erakusten digu eta konkezio maila exkax honek ez du ezer ziurtatzen. Udal gobernu honek ez diola inongo garrantzirik ematen gai honi.

Honegatik Guztiagatik honako **KONTROL MOZIOA** aurkezten dugu.

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskaripeko geldialdien funtzionamenduaren inguruko ebaluazio txostena aurkeztu dezan 2019ko martxoa bukatu baino lehen.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskaripeko geldialdiak ezartzeko plangintza eta kronograma aurkeztu ditzan, 2015-2019ko legealdia amaitu baino lehen.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Ayem Oskoz Urrutikoetxea

EH Bildu udal taldeko zinegotzia